

## KULTURA-ANIZTASUNA ETA GIZARTE-KOMUNIKAZIOA

Jose Inazio Basterretxea Polo  
Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2002

Izenburuaren baitan, liburuan kontzeptu asko agertzen direla suma dezake irakurleak: kulturaren, aniztasunaren, gizartearen, komunikazioaren eta abarren definizioez gain, horien askotariko adierazbideak, ikuspuntu ezberdinak, errealitate ugariak... Beraz, horien artean galtzeko beldurra senti liteke, irakurtzen hasi aurretik. Ez dago arriskurik, oso ongi sistematizaturiko testuaren aurrean baitago. Izan ere, kontzeptuen nahasmahasean ez galtzeko giltzak ematen ditu idazleak hasieratik, eta, atalez atal, orokorretik zehatzera, kontzeptuen planteamenduetatik egilearen proposamen zehatzetara garamatza, bidean hausnartzeko askatasuna emanez.

Zazpi atal nagusi eta epilogo bat dituen arren, liburuan bi zati bereizten direlakoan nago; alde batetik, komunikazioaren oinarrian dauden kontzeptu eta teoria orokorrei dagokiena —lehenengo hiru atalek osatua—, eta, beste aldetik, gaurko gizartea aztertzeko eta ulertzeko giltzarria dena. Hori dela eta, lehenengo atalean komunikazioari buruzko teorizazio zientifiko batzuk azaltzen ditu Basterretxeak: komunikazioaren definizioa bera, ezaugarriak eta prozesu komunikatiboaren partaideak edo osagaiak, baita hainbat adituren formulazio teorikoak ere; eredu klasikoak, nolabait.

Gizakien arteko komunikazioaren garapena da bigarren atalaren ildo nagusia. Lehenengo gizakiek erabiltzen zituzten hotsak hitz bihurtu zirenetik,

komunikazioa nola eratu den azaltzen du idazleak, eta ingurua ezagutzeko eta ulertzeko hizkuntzak duen garrantzia azpimarratzen du. Idazkeraren bilakaerak eta zeinuaren teoria klasikoek —edo semiotikari buruzko azalpen teoriko nagusiek— ixten dute oso ikuspegi orokorra eskaintzen duen azalpena.

Elkarren artean komunikatzeko gizakiek erabilitako tresnak dira hirugarren atalean ardatz nagusia. Inprentatik hasita gaurko hedabide digitaletara arteko komunikabide ezberdinak aztertzen ditu idazleak; agerian uzten du zeintzuk (izan) diren gertaerak eta gizartea bera interpretatzeko edota irudikatzen komunikabideek bete (izan) dituzten funtzioak; baita horien helburuak ere.

Hortik aurrera, globalizazio-garaian, mundua ulertzeko giltza —eta bereziki bertan elkarrekin bizi diren kulturak eta gizarteen arteko harremanak— uzten du egileak ikasleen eskuetan. Idazleak berak sarreran aitortzen duenez, ikuspuntu zehatz batetik planteatzen du azterketa: «liburu honetan aniztasunaren izenean txikiari egin ohi zaion integratzeko eskariaren isla bilatu gura baldin badu, erratuta dabil; izan ere, aurkitzekotan, handiak txikiari zor dion errespetu-beharra aurkituko du, aniztasunaren izenean».

Kultura handien, iritzi nagusien edota boterearen diskurtsoen aurrean, txikiek, baztertuek eta ezezagunek komunikabideetan duten tokiari buruzko

hausnarketa eta analisi kritikoak proposatzen ditu Basterretxeak. Eta hori da, hain zuzen ere, nire ustez, lan honen ekarpenik handiena. Komunikazioari buruzko teoria orokorren planteamendu soila baino haratago doa idazlea, oso era ausartean, behin baino gehiagotan zuzenean interpelatuz irakurlea, eta agerian uzten du errealtatea ezagutzeko, gizarteen lehentasunak ezartzeko edota kultura-adierazpen nagusiak ezartzeko —baita hizkuntzakoak ere— komunikabideek duten erantzukizuna. Planteamendu horrekin lotuta, liburuaren idazkera bera ere gorai patuko nuke, gaiaren eta edukiaren ulergarritasunaren zerbitzuan izateaz gain, irakurlearen iritzi kritikoa eragiten baitu. *Komunikazioaren eta Informazioaren Oinarriak* izeneko ikasgaietako ikasleei zuzenduta dago liburua, eta nabaritzen da, oso adibide zehatz eta hurbilekoek argitzen baitituzte Basterretxearen azalpenak. Era berean, behin baino gehiagotan irakurleari —ikasleari— zuzenki eskaintzen dio azalpena edo galdera, bigarren pertsonan, horren erantzuna edo hausnarketa bultzatu nahian, kontzeptuak besterik gabe irents ez ditzan.

Irakurketa kritikoa ahalbidetzeko giltzarriak eskaintzen ditu egileak bosgarren atalean. “Gizarte-komunikazioa eta gu” izenburuak berak agerian uzten duenez, subjektuak mundua ikusten du —bakoitzak bere begien bitartez—, beste inork ez bezala. Eta komunikabideek subjektu batzuen ikusmiratik eskaintzen dituzte errealtatea eta inguruko irudiak. Hori dela eta, kritikoa

izan behar du komunikabideen begira-leak, eta hainbat faktore hartu behar ditu kontuan heltzen zaizkion diskurtsoak aztertzerakoan, bestela, informazio-edo publizitate-produktuen kontsumitzaile hutsa —dena irensten duena— bihurtzeko arriskua du eta.

Komunikabideek plazaratzen dituzten mezuak ez ezik, hedabideak erabili ohi dituen botereak erabilitako estrategiak ere aurkitzen ditu irakurleak seigarren eta zazpigarren ataletan. Eta badirudi ez dagoela irtenbiderik, ezin zaiola aurre egin goitik behera, ondo antolaturiko estrategia horri. Gezurra, manipulazioa edo agerian ez dauden beste trikimailu batzuk erabiltzen dituztenen aurrean, gutxi egin ahal dute txikiak, komunikazio horizontala, aniztasuna eta berdintasuna aldarrikatzen dituztenek. Benetan irudi ezkorra!

Epilogoan, berriz, txikiaren apologia egiten du Basterretxeak, aniztasunean oinarritutako berdintasuna aldarrikatuz, bizikidetzaren oinarrian bestearen ulertzea dagoela adieraziz; eta hori bete dadin, gauza bat eskatzen du: konpromisoa. Horri eskaintzen dizkio idazleak liburuaren azken hitzak: «Konpromisoa, horixe da liburuaren azken hitza. Gizarte-komunikazioaren kultura-aniztasunaren izenean, konpromisoa hartzea da gelditzen zaigun aterabide bakarra. Konpromisoa besteena errespetatzeko; konpromisoa geurea errespetatzeko. Konpromisoa».

*Arantza Gutierrez Paz*